BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

2672

EBAZPENA, 2012ko otsailaren 17koa, Ingurumeneko sailburuordearena. Honen bidez, Turtziozko hondakin-uren araztegiari buruzko proiektuak ingurumenean duen eraginaren ebaluazioaren prozedura ez betetzea erabakitzen da.

2011ko urriaren 4an, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak ingurumenari buruzko dokumentu bat bidali zion Ingurumen Sailburuordetza honi, ingurumen-organoak bere irizpena eman zezan, Turtziozko hondakin-uren araztegia eraikitzeko proiektuak ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazioaren prozedura bete behar duen.

Proiektuaren helburua 4.356,80 m^2-ko oin-azalera duen araztegi bat eraikitzea da. Araztegi hori Turtziozko udalerriko Pando auzoko 2.849 biztanleek (Agera ibaiaren ezker aldea) dituzten beharrei erantzuteko diseinatuta egongo da, eta Natura 2000 Sarearen Armañon ES2130001 Garrantzi Komunitarioko Lekuan sartutako lekuetan afektazio puntuala eragingo du, bai eta Armañongo Parke Naturalean ere, Garrantzi Komunitarioko Leku horren mugakide delako.

Proiektuen ingurumen-inpaktua ebaluatzeko Legearen Testu Bategina onesten duen urtarrilaren 11ko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretuaren 3.2.b) artikuluan xedatutakoa aplikaturik, I. eranskinean sartu gabe dauden eta Natura 2000 Sareko lekuetan zeharka edo zuzenean eragin dezaketen proiektu publikoek edo pribatuek ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio bakar bat jaso beharko dute, ingurumen-organoak hala ebazten badu.

Urtarrilaren 11ko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretuaren 16. artikuluak dioenez, pertsona fisiko edo juridiko batek, publiko nahiz pribatu izan, I. eranskinean sartu gabe dagoen eta Natura 2000 Sareko lekuetan zeharka edo zuzenean eragin dezakeen proiekturen bat egin nahi badu, autonomia-erkidego bakoitzak izendatutako organoari eskatu beharko dio bere irizpena eman zezan, proiektuak ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazioaren prozedura bete behar duen, III. eranskinean ezarritako irizpideak betez.

Errege-dekretu horren 17. artikuluak xedatzen duenez, aurreko artikuluan aipatutako eskaria jasotzen duen organoak irizpena eman beharko du proiektuak ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazioaren prozedura bete behar duen autonomia-erkidegoak ematen duen epean. Hori egin aurretik, proiektuaren eragina jasotzen duten administrazioei, pertsonei eta erakundeei kontsulta egingo zaie, eta beren eskura jarriko da proiektuaren ingurumen-agiria.

2011ko urriaren 14an, ingurumen-organoak proiektuaren eragina jasotako administrazioei eta erakundeei kontsulta egin zien ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazioaren prozedura betetzeko beharrari buruz, eta, hala badagokio, eragina ebaluatzeko azterlanak jaso beharko lukeen edukiari eta gutxieneko irismenari buruz ere bai, hala xedatuta baitago Proiektuen Ingurumen Inpaktuaren Ebaluazioari buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen urtarrilaren 11ko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretuaren 17.2 artikuluan.

Hauen guztien erantzuna jaso da: Kultura Ondarearen Zuzendaritza, Osasun Saileko Bizkaiko Lurralde Zuzendaritza eta Biodibertsitaterako eta Ingurumen Partaidetzarako Zuzendaritza, guztiak ere Eusko Jaurlaritzakoak; hauek ere erantzun dute: Turtziozko Udala, Kultura Saila

eta Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza Saileko Kontserbazioaren, Natura 2000 Sarearen eta Biodibertsitatearen Zerbitzua.

2012ko otsailaren 1ean, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak Ingurumen Sailburuordetzari jakinarazi zion aurkeztutako proiektua aldatua zela. Izan ere, azpiegiturari kokapen berria eman zitzaion: horrela, ordutik aurrera Armañongo Parke Naturaletik eta Garrantzi Komunitarioko Lekutik kanpo geratuko litzateke guztiz.

Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzak adierazi du bere Sailean argi dutela egin beharreko lanek ez dutela batere eraginik izango kultura-interesa duten elementuetan. Gogora ekarri du, hala ere, kultura-ondareari buruzko katalogoak berrikusteko prozesuan daudela; ondorioz, baliteke analisian elementu guztiak aztertu ez izana edo elementu berriak egotea, etorkizunean ezagutu ahal izango direnak.

Osasun Saileko Bizkaiko Lurralde Zuzendaritzak adierazi du proiektua ona eta baliagarria dela osasun publikorako, baina proiektua eraginkorra izateko zenbait gogoeta egiten dira, udalerria osatzen duten guneetako saneamendu-sarea exekutatu eta hobetzeko beharrari buruz.

Eusko Jaurlaritzako Biodibertsitaterako eta Ingurumen Partaidetzarako Zuzendaritzak txostena egin du proiektuak eraginpeko natura-balioetan izango duen eraginari buruz. Ondorioztatu du ezen, landaretzari, habitatari et txostenean agertzen den konektibitate ekologikoari buruzko prebentziozko zenbait neurri hartuta, eta kontuan hartuta proiektuak eragin gutxitxo izango duela Armañongo Parke Naturalean eta Garrantzi Komunitarioko Lekuan, ez dela zantzurik ikusten, proiektuaren ingurumen-eragina ebaluatu behar dela pentsarazten digunik.

Turtziozko Udalak adierazi du ezen, proiektua Euskal Herriko Ingurugiroa babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Legearen I.B) eranskinean, ez eta urtarrilaren 11ko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretuaren 1. eranskinean ere, Armiñongo Parke Naturaletik hurbil dagoenez, ingurumen-agiri bat idatzi beharra dagoela, araztegiaren eraikitze-proiektua osatuko duena. Beren txostenean bukaeran esaten du, hala ere, obren fasean gertatzen den edozein inpaktu ñimiñoa izango dela gaur egun hondakin-urekin egiten denarekin alderatuta, hondakin-urak zuzenean Agera ibaira botatzen baitira, eta azpimarratzen du proiektuaren hasierako dokumentuan aipatutako puntuak guztiz egokiak direla, akasgabeak.

Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Sailak adierazi du proiektuaren eremuan ez dela aitortu ez sailkatutako edo inbentariatutako ondare arkitektonikorik ez arkeologikorik, ez eta presuntzio arkeologikoko eremurik ere, baina behar bezain ezagunak ez diren kultura-ahalmena duten eremuetan eragiten denez, azterlan bat egitea nahitaezkoa da beren eduki arkeologikoa ebaluatzeko, obra betearazi aurretik.

Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza Saileko Kontserbazioaren, Natura 2000 Sarearen eta Biodibertsitatearen Zerbitzuak txostena eman du landaretza eta faunako espezieei buruz, interes komunitarioko habitatei buruz, gune babestuei, korridore ekologikoei eta interesa duten beste elementu natural batzuei buruz, proiektuaren eremuaren inguruko 100 metroko inguratzaileak osatutako eremu batean baitaude. Azkenean aipatzen du Armañongo Parke Naturalaren eta Garrantzi Komunitarioko Lekuaren afektazioa duten obrek administrazio-organo honen berariazko baimena behar dutela.

Aipatu erantzunak Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak hasieran aurkeztutako proiektuari buruzkoak izan dira, eta ez gero bidalitako aldaketari buruzkoak, aldaketa horren bidez kentzen baita Armañongo Parke Naturalaren eta Garrantzi Komunitarioko Lekuaren zuzeneko afektazioa.

Informazio eskuragarria aztertu da ikusteko nolako ondorioak izango dituen proiektuak ingurumenean, Proiektuen Ingurumen Inpaktuaren Ebaluazioari buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen urtarrilaren 11ko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretuaren III. eranskinaren irizpideen arabera.

Proiektuaren ezaugarriak.

Proiektuaren helburua hauxe da: Turtziozko udalerriko hondakin-urak tratatzeko araztegi bat eraikitzea, Agera ibaiaren isurketa-baldintzak hobetzeko.

Araztegia ibaiaren ezker aldean egin nahi da, lau xamarra den gain batean, 4.356,80 m^2-ko azalera duena.

Azpiegiturak lehen mailako tratamendua (arbastatzea, harea-kentzea eta koipegabetzea) eta bigarren mailakoa (hondakin aktibo bidezko tratamendu biologikoa eta bigarren dekantazioa) jasotzeko behar diren elementuak ditu. Hondakinak tratatzeko lerro bat ere jasota dago. Usain txarra eragin dezaketen prozesuak itxita dauden eraikinen barruan egiteko dira.

Proiektuaren tamainari dagokionez, araztegia 2.849 biztanleren beharrei erantzuteko diseinatu da, eta honako isurketa-balio hauek lortzeko behar den tratamendu-ahalmena du:

- DQO ≤ 125 mg/l
- DBO5 ≤ 25 mg/l
- SS ≤ 35 mg/l
- Nt ≤ 15 mg/l
- Pt ≤ 2 mg/l
- pH gutxienez 6,5 eta gehienez 9.
- Olioak eta koipeak ≤ 5 mg/l

Ildo horretatik, Ingurumen Inpaktuaren Ebaluazioari buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen urtarrilaren 11ko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretuak eta Euskal Herriko Ingurugiroa babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrak araztegien ingurumen-inpaktua ebaluatzeko muga, hurrenez hurren, 150.000 eta 100.000 biztanleena da. Bestalde, 1/2008 Legegintzako Errege Dekretuaren II. eranskinean jasota dauden proiektuetarako, ingurumen-organoak ebatzi behar du ingurumen-inpaktua ebaluatu behar den ala ez. Hor muga 10.000 biztanle da.

Horregatik guztiagatik, eta proiektuaren ezaugarriei dagokienez kontuan hartu behar diren gainerako faktoreengatik (beste proiektu asko egotea, baliabide naturalak erabiltzea, hondakinak, kutsadura eta horrelakoak sortzea, eta istripuak gertatzeko arriskua egotea, bereziki erabilitako sustantziei eta teknologiei erreparatuta), proposatutako jarduera ez dela oso handia pentsatu da, ingurumen-inpaktua eragin dezaketen ekintzei dagokienez.

Proiektuaren kokapena.

Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak bidalitako dokumentazio berriaren arabera, azpiegitura Armiñongo Parke Naturaletik eta Garrantzi Komunitarioko Lekutik kanpo dago. Hori dela eta, babestutako gune horretan zuzeneko afektaziorik ez da gertatuko.

Era berean, ez da afektaziorik atzematen baliabide baliotsuen gainean, hala nola, hezeguneetan, mendi-eremuetan, baso autoktonoetan, eta abarrean, baina garatzen den eremua jasota dago Ingurumen Sailburuordetzak egindako paisaia bitxi eta ikusgarrien katalogoaren aurreproiektuan.

Hala ere, bailararen hondo-hondoan dagoenez, Pando auzoko hiri-eremuei segida emanez, eta Biodibertsitaterako eta Ingurumen Partaidetzarako Zuzendaritzaren txostenean iradokitako prebentzio-neurriak kontuan harturik, ebazpen honetan jasota baitaude, ondorioztatu da ez dagoela bateraezintasunik eskualdearen karga-ahalmenean, aurreikusitako erabilerarako.

Balizko inpaktuaren ezaugarriak.

Litekeena da proiektuaren exekuzioan zenbait ekintza gertatzea, ingurumen-inpaktuak eragin ditzaketen ekintzak hain zuzen, lur-mugimenduen ondorioz, landare-estaldura kenduta, hautsa eta zarataren ondorioz, hondakinen sorkuntzaren eta solido esekiz beteriko uren isurketaren ondorioz gertatzen direnak.

Baina ebazpen honetan jasotako neurriak hartuta (kontsulta-izapidean eragindako administrazioek iradokitako neurriak barne), ez da aurreikusi afektaziorik gertatuko denik, proiektuaren eraginpeko eremutik hurbileko gune naturalik baliotsuenen kontserbazio-egoera arriskuan jar lezakeenik. Gune horiek Armiñongo Parke Naturalean eta Garrantzi Komunitarioko Lekuan daude. Esandako guztiagatik, aurreko paragrafoan aipatutako ekintzen ondorioz gerta litezkeen inpaktuak ez dira oso handiak izango.

Bestalde, azpiegitura berria dagoen eremuan sortzen diren hondakin-uren tratamenduak Agera ibaiaren uren eta egoera ekologikoaren kalitatea hobetzea ekar lezake.

Ikusi dira proiektuaren ezaugarriak, Proiektuen Ingurumen Inpaktuaren Ebaluazioari buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen urtarrilaren 11ko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretuaren III. eranskinaren irizpideak, eta kontsulta-izapidean jasotako erantzunak. Horiek guztiak oinarritzat harturik ondorioztatu da proiektuak ez dio kalte handirik egingo ingurumenari, ebazpen honetan ezarritako neurri babesle eta zuzentzaileak hartzen badira behintzat.

Ikusirik organo honek duela ebazpen hau emateko eskumena, hala xedatuta baitago Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen abenduaren 22ko 629/2009 Dekretuan.

Ikusirik zer dioten Euskal Autonomia Erkidegoko ingurugiroa babesten duen otsailaren 27ko 3/1998 Legeak eta Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen abenduaren 22ko 629/2009 Dekretuak, honako hau

EBAZTEN DUT:

1.– Turtziozko hondakin-uren araztegiari buruzko proiektuak ingurumenean duen eragina ez ebaluatzea, eta proiektua betearazteko, honako baldintza hauek bete beharko dira:

● Proiektuaren azalera Bilbao Bizkaia Uren Partzuergoak 2012ko otsailaren 1ean Ingurumen Sailburuordetza honetara bidalitako dokumentazioan datorrena izango da. Ondorioz, azpiegitura oso-osorik Armiñongo Parke Naturaletik eta Garrantzi Komunitarioko Lekutik kanpo egongo da.

● Bilbao Bizkaia Uren Partzuergoak 2011ko urriaren 4an ebazpen hau eragiten duen tramite honi ekiteko aurkeztutako proiektuaren ingurumen-dokumentuan ezarritako neurri babesle eta zuzentzaileak hartu beharko dira.

● Ahalik eta afektaziorik txikiena izan behar dute proiektuaren eremuaren mendebaldean dauden zuhaitz-hesiek, proiektua gauzatzeko ezinbestekoa dena baino ez. Horretarako, jarduera-eremuak aurretiaz balizatu behar dira, makinen joan-etorriak kalterik ez eragiteko behar bezain nabarmenak diren elementuak erabiliz.

● Neurrietan zehatz aipatu behar dira zaharberritu beharreko azalerak, eta kendu beharreko zuhaitz-hesien azalerekin erkatu behar dira. Birlandatutako eremuek afektazioa jasandakoek (helduagoak) baino balio txikiagoa dute hasieran. Hori dela eta, eraginpeko azaleraren eta birlandatukoaren artean 1:2 baino handiagoa den portzentaje bat gomendatzen da.

● Birlandatze-lanetan, landare-espezie autoktonoak baino ez dira erabiliko.

● Belarkara eta sasi espezieen ereite/hidroereite teknikak erabili behar dira, 2-3 izerdidun sasiak eta zuhaixkak landatuta, landaketa trinkoen garaian, prestakuntza ugaria eta heldua lortzeko eta delako indizea gutxitzeko.

● Birlandatzearen helburua lekuan zuhaitz-hesien sari bat edukitzea izan behar da. Dituen eginkizun ekologikoak indartzeko, ondoko zuhaitz-egiturekin lotuta dagoen zuhaitz-lerro batek baino zabalera handiagoa duen erkatze perimetrala hartu behar da.

● Armiñongo Parke Naturalean eta Garrantzi Komunitarioko Lekuan egindako edozein gorabehera puntual Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza Saileko Kontserbazioaren, Natura 2000 Sarearen eta Biodibertsitatearen Zerbitzuari jakinarazi beharko zaio.

● Eraikitze eta funtzionamendu aldietan sortutako hondakinak Hondakinei eta lur kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legearen arabera kudeatuko dira.

Teknikoki eta ekonomikoki bideragarria den balorazioa duten hondakinak beharrezko baimena duen hondakin-balorizatzaileari bidali behar zaizkio.

Hondakinak kasu bakar batean desegingo dira: aurretiaz behar bezala justifikatzen bada bere balorizazioa ez dela bideragarria ez ikuspegi teknikotik, ez ekonomikotik, ez eta ingurumen-ikuspegitik ere.

Zabortegira eramateko diren hondakinak honako bi dekretu hauen arabera kudeatuko dira: Hondakinak zabortegiratuz desegitea arautzen duen abenduaren 27ko 1481/2001 Errege Dekretua eta Hondakinak zabortegiratuz eta betegarriak exekutatuz desegitea arautzen duen otsailaren 24ko 49/2009 Dekretua. Hondakinak zabortegietan onartzeko irizpideak eta prozedurak onartzen dituen 2002ko abenduaren 19ko Kontseiluaren 2003/33/CE Erabakiaren araberako izan beharko dira hondakinak, 1999/31/CEE Zuzentarauaren 16. artikuluarekin eta II. eranskinarekin bat etorriz.

Erabilitako olioak bi dekretu hauen arabera kudeatu beharko dira: Erabilitako olioen kudeaketa arautzeari buruzko ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretua eta Euskal Autonomia Erkidegoan olio erabilien kudeaketa arautzeari buruzko irailaren 29ko 259/1998 Dekretua.

Baimendutako gestoreari eman baino lehenago, erabilitako olioak teilatu pean biltegiratuko dira, behar bezala etiketaturik dauden ontzi estankoen barruan, zoru iragazgaitzean eta kubeten barruan edo isurketei eta ihesei eusteko sistemetan.

2.– Ebazpen hau Bilbao Bizkaia Uren Partzuergoari eta Turtziozko Udalari jakinaraztea.

3.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agindua ematea.

4.– Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, haren aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuari, hilabeteko epean, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik hasita, hala baitator xedatuta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 114. artikuluan eta ondorengoetan (lege hori urtarrilaren 13ko 4/1999 Lege bidez aldatua izan zen).

Vitoria-Gasteiz, 2012ko otsailaren 17a.

Ingurumeneko sailburuordea,
M.ª ARANZAZU LETURIONDO ARANZAMENDI.